

EKOIZPEN  
Unitatea



DK

memoria

2019



*Ekaingo kobazuloen aurkikuntzaren 50. urteurrena ospatzeko gala, Aranzadiren esku. Victoria Eugenia Antzokia.*

2019an, Donostia Kulturako Produzekzio Unitateak **887 ekoizpen** egin zituen, Victoria Eugenia Antzokian, Antzoki Zaharrean, San Telmo Museoan, Kursaal zentroan eta beste gunen batzuetan egindakoak batuta.

Ekoizpenotan sartzen dira Antzerki FERIA, Giza Eskubideen Zinemaldia, Olatu Talka jaialdia, Heineken Jazzaldia eta Fantasiak eta Beldurrezko Zinemaren Astea, bai eta beste erakunde batzuekin izandako beste lankidetzak batzuk ere, zeinen artean honako hauek nabarmenduko baititugu:

- **Euskaltzaindiaren Mendeurreneko** jardunaldiak
- **Ekaingo kobazuloen 50. urteurrena**
- **Donostia International Physics Centeren** kongresua
- **Teledonostiren 25. Urteurreneko** gala
- **Star Wars** sagaren azken emaitzaren europar **aurrestreinaldia**.

Donostia Kulturaren produkzio horiez gainera, 2019an beste entitate eta erakunde batzuei ere eskaini genizkien gure ekoizpen-zerbitzuak.

- **Kursaal Eszenako** kontzertuak (musika klasikoa eta herri-musikak).
- **Musika Hamabostaldiko** kontzertuak, Kursaal Auditorioan, Victoria Eugenia Antzokian, San Telmo Museoan eta beste gunen ireki batzuetan.
- Produkzio Koordinazioa, **Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarekin** batera, Victoria Eugenia Antzokian.
- Gabonetako Kontzertua (**El Diario Vasco**).
- **Kursaal Auditorioaren** XX. urteurreneko gala.

Azkenik, nabarmendu behar da **Pauso Berriak** hitzarmena berritu zela Gureak Fundazioarekin eta Atzegirekin. Programa horrek

gutxiagotasun intelektuala duten pertsonen gure inguruko enpresa eta erakundeetan lan egiteko bidea ematea du helburu.



*Star Wars: el ascenso de Skywalker* pelikularen estreinaldia Victoria Eugenia Antzokian